

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2015eko UZTAILAREN 30ean
EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA.

Olaberrian, 2015eko uztailaren 30ean, arratsaldeko 6:05ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira jarduneko Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola, Mikel Etxarri Juanes, Elixabet Canales Segurola, Maider Agirre Mugika, Aritz Arantzegi Areitio eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

- 2015eko ekainaren 18ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.

Gaia bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratzen da.

ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 30 DE JULIO DE 2015.

En Olaberria, a 30 de julio de 2015, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena, y los concejales Nerea Castaño Irazola, Mikel Etxarri Juanes, Elixabet Canales Segurola, Maider Agirre Mugika, Aritz Arantzegi Areitio e Iñigo Sarasola Aranzasti .

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

- Acta de la Sesión Extra-ordinaria del 18 de junio de 2015.

Tras proceder a la votación, queda aprobada por unanimidad.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ALKATETZAKO GAIAK

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 68/2015etik 99/2015-ra bitartean.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Bake epaile titular eta ordezkoko berrien hautaketa.

2015eko maiatzaren 14an egin zen Bilkuran, Olaberriko Bake Epaile titularra zen Elixabet Canales Segurola andrearen kargu uztearen ondoren, Bake Epaile Titularraren eta bere Ordezkoaren hautaketa prozesu berria abian jartzeko beharra jakinarazi zen.

Beraz, izendapen berria egiteko beharrezko espedienteari hasiera eman zaio, dagokion iragarkia, 93 zenbakidun 2015eko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik, kargu hauek betetzeko interesa zutenek Udaletxean izena eman zezaten 15 egun naturaleko epean.

Hiru eskari aurkeztu dira, honako hauek izanik:

TEMAS DE ALCALDÍA

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 68/2015 al 99/2015.


Los corporativos quedan al corriente.

Elección de nuevo juez de paz titular y sustituto.

En el Pleno celebrado el 14 de mayo de 2015 se dio cuenta de la necesidad de iniciar un nuevo proceso de selección de Juez de Paz y sustituto de Olaberria por motivo de la renuncia de la Juez de Paz titular de Olaberria, Doña Elixabet Canales Segurola.

Por lo tanto, se ha procedido a iniciar el correspondiente expediente para el nuevo nombramiento, insertando el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 93 de 20 de mayo de 2015, otorgando un plazo de 15 días naturales para que l@s interesad@s en ocupar dichos cargos pudieran dar su nombre en el Ayuntamiento.

Se han presentado las siguientes solicitudes:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

- Saray Barreiro Heras
- Olatz Mendizabal Lariz
- Juan Seco Martín
- Jose Ignacio Zudaire Albéniz
- Omar Luque Rodríguez
- Amaia Cuellar González.

- Saray Barreiro Heras
- Olatz Mendizabal Lariz
- Juan Seco Martín
- Jose Ignacio Zudaire Albéniz
- Omar Luque Rodríguez
- Amaia Cuellar González.

Botere Judizialeko Lege Organikoaren 99tik 103ra bitarteko artikuluetan eta Bake Epaileen araudia jasotzen duen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, Udal Osoko Bilkurari dagokiola udalerrri honetako Bake Epaile titularra eta ordezkoa izendatzea.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 99 a 103 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y el Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz, corresponde al Pleno del Ayuntamiento elegir al Juez de Paz titular y sustituto de este municipio.

Hau horrela izanik, Udalbatzak gaia aztertzen du, aurkeztutakoen egokitasuna kontuan izanik, eta baita bakoitzak duen denbora eta disponibilitatea ere kargu hauek betetzeko.

Siendo esto así, la Corporación estudia el tema, teniendo en cuenta la idoneidad de las personas presentadas, así como el tiempo y la disponibilidad de cada un@ para ocupar dicho cargo.

Jarraian bozketara pasatzen da, emaitza ondorengo izanik:

Acto seguido se pasa a la votación, con el siguiente resultado:

▪ Bake Epaile Titularren kargurako, bozketaren emaitza ondorengo da:


▪ Para el cargo de Juez de Paz Titular, el resultado de la votación es el siguiente:

- Gehiengo absolutuz erabakitzen da, kargu hau beteko duen pertsona Amaia Cuellar González.

- Se decide por mayoría absoluta, que la persona que ocupe este cargo sea Amaia Cuellar González.

▪ Bake Epaile Ordezkoaren

▪ Para el cargo de Juez/a de Paz



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

kargurako, bozketaren emaitza ondorengoa da:

- Gehiengo absolutuz erabakitzen da, kargu hau beteko duen pertsona Saray Barreiro Heras izatea.

Beraz, Udalbatzaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartutako akordioa ondorengoa da:

LEHENA: Amaia Cuellar González andrea proposatzea Bake Epaile Titular moduan, datozen lau urteetarako.

BIGARRENA: Saray Barreiro Heras andrea proposatzea Ordezko Bake Epaile moduan, datozen lau urteetarako.

HIRUGARRENA: erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

LAUGARRENA: erabaki honen berri ematea Euskadiko Justizi Auzitegi Nagusiari."

2015eko uztailaren 8ko 97/2015 alkatetza ebazpenaren berrespena.

2015eko uztailaren 8ko 97/2015 alkatetza ebazpen bidez honako hau adierazi eta ebazten da:

" 2015eko maiatzaren 19an, Olaberriko

Sutituto/a, el resultado de la votación es el siguiente:

- Se decide por mayoría absoluta, que la persona que ocupe este cargo sea Saray Barreiro Heras.

Por lo tanto, el acuerdo adoptado por mayoría absoluta de la Corporación es el siguiente:

PRIMERO: Elegir como Jueza de Paz Titular a Amaia Cuellar González para los próximos cuatro años.

SEGUNDO: Elegir como Juez de Paz Sustituto a Saray Barreiro Heras para los próximos cuatro años.

TERCERO: notificar esta decisión a l@s interesad@s.

CUARTO: dar cuenta de esta decisión al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco."

Ratificación del decreto de alcaldía 97/2015 de 8 de julio de 2015.

Mediante decreto de alcaldía 97/2015 de 8 de julio de de 2015 se expone y resuelve lo siguiente:

" En el expediente incoado para la



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin betiko onarpenari buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi-helegite aurkezpenari buruz izapidetzen ari den espedientearen baitan, Udaleko eskubide eta jarduketan defentsan, Udal Idazkariak errekurtsua jartzearen aldeko txostena igorri du.

Beraz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 k) artikulua ematen didan ahalmenarekin, zera

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA: 2015eko maiatzaren 19an, Olaberriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin betiko onarpenari buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-helegitearen aurkezpena agintzea.

BIGARRENA: Jon Orue-Etxebarria Iturri letratu jauna izendatzea, epaian Olaberriko Udaletxearen ordezkari eta defentsa lanak egin ditzan, Udalaren interesak defendatzeko egoki diren akzioak egikartzeko gaitzen zaiolarik.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau, ospatuko den hurrengo Bilkurara eramatea, honek berretsi dezan.

Aurrekoa ikusirik, eta kontutan hartuz

interposición de un Recurso Administrativo en defensa del Ayuntamiento de Olaberria frente al Acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de 19 de mayo de 2015, en relación a la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Olaberria, en defensa de los derechos y acciones del Ayuntamiento de Olaberria, la Secretaria del Ayuntamiento ha emitido el preceptivo dictamen jurídico favorable a la formulación del mismo.

Por lo tanto, y según la competencia que me otorga el art. 21.1 k) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local


RESUELVO

PRIMERO: Disponer la interposición de recurso contencioso-administrativo frente al Acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de 19 de mayo de 2015, en relación a la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Olaberria.

SEGUNDO: Designar al letrado Don Jon Orue-Etxebarria Iturri para el ejercicio de la representación y defensa en juicio del Ayuntamiento de Olaberria, quien queda facultado para la dirección de las acciones que resulten oportunas en defensa de los intereses del Ayuntamiento.

TERCERO: Dar cuenta al Pleno de la presente Resolución, en la primera sesión que se celebre, para su ratificación. “

Visto lo anterior, y siendo la presente



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Batzar hau alkatetza ebazpena eman zenetik lehenengoa dela, azken honen berrespena bozkatzen da, honako Akordio hau hartzen delarik:

BAKARRA: Gehiengo absolutuz, BILDU taldeko aurkako botoarekin eta O.H.E. taldeko abstentzioarekin, 2015eko uztailaren 8ko 97/2015 alkatetza ebazpena berrestea erabakitzen da.

AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA

Olaberriko Udaleko altako hornidura instalakuntzak mantentzeko eta ustiatzeko Gipuzkoako Urak eta Olaberriko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena

Joan zen batzorde informatzailean ondoren adierazten den hitzarmenaren zirriborroa aurkezten da: Olaberriko Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Olaberriko Udaleko altako hornidura instalakuntzak mantentzeko eta ustiatzeko.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du:

LEHENENGOA: Gehiengo absolutuz onartzen da aipatu Lankidetzaren hitzarmena, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin.

BIGARRENA: Alkatea ahalordetu Hitzarmenaren sinadurarako.

sesión plenaria la primera que se celebra desde que se dicta la resolución, se procede a votar la ratificación, siendo el Acuerdo que se toma el siguiente:

ÚNICO: Se acuerda, por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo BILDU y la abstención del concejal del grupo O.H.E. ratificar el decreto de alcaldía 97/2015, de 8 de julio de 2015.

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO


Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Olaberria y Gipuzkoako Urak para el mantenimiento y explotación de las instalaciones de abastecimiento en alta del Ayuntamiento de Olaberria.

Se presenta en la pasada comisión informativa el borrador del Convenio de colaboración entre el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Olaberria para el mantenimiento y explotación de las instalaciones de abastecimiento en alta del Ayuntamiento de Olaberria.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda:

PRIMERO: Aprobar por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo BILDU, el referido Convenio de Colaboración.

BIGARRENA: Facultar al Alcalde para la firma del Convenio.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU
TEKNIKOAK

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS
MUNICIPALES

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.


Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

3.000 EUROTİK GORAKO FAKTURAK
Facturas que superan los 3.000 euros

ZBK.	IZENA	CIF	AZALPENA	KOPURUA
1	GUREAK BERDEA S.L.U.	B20502613	FRA. FV11501162	3.233,79 €
2	GIPUZKOAKO URAK S.A.	A20471462	FRA. 97000002	41.418,31 €
3	EULEN S.A	A28517308	FRA. 2887101	4.755,82 €
4	AXA SEGUROS GENERALES – ERANTZUNKIZUN ZIBILA	A60917978	CONT.106002 4758	3.184,50 €
5	GEUK, S.L.	B20830006	FRA. 083/15	4.307,60 €
6	IZFE	A20456976	FRA. 2015/585	5.331,68 €
7	GIPUZKOAKO URAK S.A. ASFALTOS URRETXU, S.A.	A20471462	FRA. 980000872	23.402,15 €
8		A20095311	FRA. V-15-224 FRA.	14.225,52 €
9	GUREAK BERDEA S.L.U.	B20502613	FV11500933	3.233,79 €
10	EULEN S.A	A28517308	FRA. 2880303	4.755,82 €
11	TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L. IPARRAGIRRE	B20719456	FRA. 500150148	7.943,35 €
12	ERAIKUNTZA LANAK, S.L.	B20190674	FRA. 25	37.891,45 €
13	EULEN S.A	A28517308	FRA. 2843683	4.755,82 €
14	EULEN S.A	A28517308	FRA. 2869208	4.755,82 €
15	AUPA KULTUR LANAK – JESUS M. GALLERO	15979296T	FRA. 127	4.719,00 €
16				
17			GUZTIRA	167.914,42 €

Fakturak bozkutzen dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, BILDU taldeko zinegotzien aurkako botoarekin.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2015ko uztailaren 16ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **2.428.610,19 euro** ditu.

Kreditu aldaketa 3-2015: kreditu gehigarriak.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

LEHENENGOA: hasierako onarpena ematea 3-2015 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu gehigarri modalitatean, Udalaren 2015eko aurrekontuaren barruan.

BIGARRENA: Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 eta 34.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, aipatu espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki baten bidez.

Lankidetzaren hitzarmena, Trafikoko Buruzagitzaren Nagusia Erakunde Autonomoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Olaberriko Udalaren artekoa, bide segurtasunaren arloko informazioa

Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 16 de julio de 2015.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **2.428.610,19 euros**.


Modificación de créditos 3-2015: créditos adicionales.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta con el voto en contra del concejal del grupo BILDU:

PRIMERO: aprobar inicialmente el Expediente de Modificación de Créditos, nº 3-2015 en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2015.

SEGUNDO: En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 34.3 y 15.1 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las entidades locales, someter el acuerdo a información pública, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Convenio de colaboración entre el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico, el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Olaberria, para el intercambio de información en materia



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

trukatzeko eta datu baseetan sartzeko.

Joan zen batzorde informatzailean ondoren adierazten den hitzarmenaren zirriborroa aurkezten da: Lankidetzaren hitzarmena, Trafikoko Buruzagitza Nagusia Erakunde Autonomoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Olaberriko Udalaren artekoa, bide segurtasunaren arloko informazioa trukatzeko eta datu baseetan sartzeko

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du aho-batez:

LEHENENGOA: Onartzen da aipatu Lankidetzaren Hitzarmena.

BIGARRENA: Alkatea ahalordetu Hitzarmenaren sinadurarako.

Alkate eta zinegotzien ordain-sariak.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren inguruko proposamen bat mahaigaineratu zen eta dagokion bozketa egin ondoren, Udalbatzak honako erabaki hauek hartu zituen gehiengo absolutuz, O.H.E. taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

LEHENENGOA: Alkateari dedikazioa partzial modalitateko izendapena errekonozitzea baldintza hauetan:

- 1) Dedikazio partzial modalitatean beteko du kargua %50a dedikazioarekin.
- 2) Ordainsari gordina: 17.019,38 euro urteko; kopuru hori urtean 14

de seguridad vial y acceso a las bases de datos.

Se presenta en la pasada comisión informativa el borrador del Convenio de colaboración entre el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico, el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Olaberria, para el intercambio de información en materia de seguridad vial y acceso a las bases de datos.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad:

PRIMERO: Aprobar el referido Convenio de Colaboración.

BIGARRENA: Facultar al Alcalde para la firma del Convenio.

Retribución del Alcalde y los concejales.

En la pasada comisión informativa se realizó una propuesta con respecto al tema y tras realizar la correspondiente votación, el Ayuntamiento Pleno adopta las siguientes decisiones por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo O.H.E. :

PRIMERO: Reconocer al Sr. Alcalde una dedicación parcial en las siguientes condiciones:

- 1) Ejercerá su cargo en la modalidad de dedicación parcial al 50%.
- 2) Retribución bruta: 17.019,38 euros anuales; esa cantidad se repartirá en 14 mensualidades.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ordainsarietan banatuko da.

BIGARRENA: Zinegotziei kideanitzeko organoetara joategatiko bertaratze edo asistentziak onartzea baldintza hauetan:

1) Udal Osoko Bilkura, Informazio Batzorde, edo gainerako kideanitzeko organoetara joategatik, hileroko ordainsari finkoa, era honetan:

1.1.- Batzorde-buru diren zinegotzientzat: 200,00 euro.

1.2.- Batzorde-buru ez diren zinegotzientzat: 150,00 euro.

HIRUGARRENA: Ordainketak atzeraginezko eraginarekin eta udal korporazio berria eratu zen datako ondorioekin egitea.

LAUGARRENA: Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki taulan argitara ematea.

2014ko Kontu Orokorra: behin betiko onarpena.

Joan zen batzorde informatzailean gaia azaldu zitzairen udal-kideei eta dagokion bozketa egin ondoren, Udalbatzak honako erabaki hauek hartu zituen gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

LEHENENGO: 2014 ekitaldiko Udaleko Kontu Orokorren espedientearen arauzko jendaurreko informazio-epea

SEGUNDO: Establecer a los Concejales asistencias a reuniones de órganos colegiados en las siguientes condiciones:

1) Asistencias por asistir a Plenos, Comisiones Informativas, o a cualquier otro órgano colegiado, retribución fija mensual, en las siguientes condiciones:

1.1.- Para aquellos concejales que ostenten presidencia de comisiones permanentes: 200,00 euros.

1.2.- Para aquellos concejales que no ostenten ninguna presidencia de comisiones permanentes: 150,00 euros.


TERCERO: Ordenar que los abonos se realicen retroactivamente desde la fecha de constitución de la nueva corporación municipal.

CUARTO: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y Tablones municipales.

Cuenta General 2014: aprobación definitiva.

En la pasada comisión informativa se expuso el tema a los corporativos y tras realizar la correspondiente votación, el Ayuntamiento Pleno adopta las siguientes decisiones por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo BILDU. :

PRIMERO: Transcurrido el plazo reglamentario de información pública del expediente de aprobación de la Cuenta



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

inolako erreklamazio edo oharpenik gabe iraganenez, behin-betiko izaeraz onartzen da aipatu Kontu Orokorra.

ONGIZATE SOZIALA ETA OSASUNA

Koordinazio Soziosanitarioko Protokoloari atxikipena.

Joan zen batzorde informatzaileetan gaia azaldu zitzaien udal-kideei.

Beraz, eta udal-kideen gaiaren inguruko informazio nahikoa edukita, bozkatu egiten da, proposamena aho-batez onartzen delarik.

GAZTERIA, KULTURA, JAIK ETA KIROLA

Arkupe kirol-kultur Elkarte eta Olaberriko Udalaren arteko hitzarmenaren aldaketa.

Joan zen batzorde informatzailean ondoren adierazten den hitzarmenaren zirriborroa aurkezten da: Arkupe kirol-kultur Elkarte eta Olaberriko Udalaren arteko hitzarmenaren aldaketa. Proposatzen diren aldaketak aurkeztutako Hitzarmen berriaren zati adierazgarrian zehazturik daude, dagokion espedientean.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren abstentzioarekin:

General del Ayuntamiento relativa al ejercicio 2014 sin que se haya producido reparo, reclamación u observación alguna, el Pleno del Ayuntamiento, acuerda aprobar definitivamente la referida Cuenta General.

BIENESTAR SOCIAL Y SANIDAD

Adhesión al Protocolo de Coordinación Sociosanitaria.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.


Por lo tanto y una vez que los corporativos cuentan con la debida información, se procede a la votación quedando aprobada la propuesta por unanimidad.

JUVENTUD, CULTURA, FIESTAS Y DEPORTE

Modificación del convenio entre el Ayuntamiento de Olaberria y la Sociedad recreativa, cultural y deportiva Arkupe.

Se presenta en la pasada comisión informativa el borrador del Convenio entre el Ayuntamiento de Olaberria y la Sociedad recreativa, cultural y deportiva Arkupe, en el que se plantean una serie de modificaciones que se explicitan en la parte expositiva del borrador de Convenio que se presenta y que obra en su correspondiente expediente.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo BILDU:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

LEHENENGOA: Batzar honetan aurkeztu den Dokumentuak proposatzen dituen aldaketak onartzen dira.

BIGARRENA: Alkatea ahalordetzea Hitzarmenaren sinadurarako, bere aldaketekin.

Galdera eta erreguak

O.H.E. taldeko zinegotzia den Aritz Arantzegi jaunak, Olaberrian goierribusek eta baita Udalak ere ematen ari dituen garraio zerbitzuen inguruko galdeketak egiten ditu, Alkateak erantzuten diolarik.

Era berean, Ihurre auzoan egiten ari den igogailu urbanoaren inguruko galderak botatzen ditu, Alkateak erantzuten diolarik.

Bertaratutakoen artean, Jose Manuel Garrido jaunak Ihurre auzoaren inguruan berriak dauden galdetzen du, Arcelorreko etxebizitzaren salmenta eta Udalarari egingo zaion urbanizazioaren lagapenari dagokionez hain zuzen ere. Alkateak informazioa ematen dio.

Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko zazpiak hogeit gutxi direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

ALKATEA / EL ALCALDE

PRIMERO: Aprobar las modificaciones propuestas en el referido Convenio, tal y como se refleja en el documento que se ha traído al presente Pleno.

BIGARRENA: Facultar al Alcalde para la firma del Convenio modificado.

Ruegos y preguntas

El concejal del grupo O.H.E. Aritz Arantzegi, pregunta cuestiones a cerca de los servicios de transporte municipal que ofrecen goierribus y el propio Ayuntamiento, a lo que el Alcalde responde e informa al respecto.

Asimismo, formula preguntas a cerca del ascensor urbano que se está ejecutando en el barrio de Ihurre, y es el Alcalde el que le responde.

De entre el público presente, el Sr. Jose Manuel Garrido pregunta a cerca de las novedades que hay sobre el barrio de Ihurre, en referencia a la venta de las viviendas de Arcelor que están llevando a cabo y la cesión de la urbanización al Ayuntamiento. El Alcalde le informa al respecto.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18:40 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

IDAZKARIA / LA SECRETARIA